DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

Baitara baita

BAITARA BAITA

DONOSTIAKO ANIZTASUN ERLIJIOSOAREN TXOSTENA

2015eko azaroa

BAKEA
PAZ

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Kultur Aniztasunaren Bulegoa
Negociado de Diversidad Cultural

Deusto
Instituto de Derechos Humanos
Pedro Arrupe
Giza Eskubideen Institutua

Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak landu eta prestatu du honako txosten hau, *DSS2016 Baitara Baita* proiektuaren esparruaren barruan. Testuaren erredakzioa Andrea Ruiz Balzola kontsultorearen lana izan da nagusiki (www.andrearuiz.es), eta Giza Eskubideen Institutuko taldearen eta, bereziki, Gorka Urrutia Asuaren ekarriak ere jasotzen ditu.

AURKIBIDEA

1. **AURKEZPENA** 4
2. **ESPARRU JURIDIKOA** 4
3. **ESPAZIO PUBLIKOA ETA ERLIJIOA** 6
4. **ERLIJIO ANIZTASUNA** 8
5. **ERLIJIO FAKTOREA MIGRATZE ETA INTEGRAZIO PROZESUETAN** 9
6. **ERLIJIO SINESTEAK DONOSTIAN** 11
7. **DONOSTIAKO ERLIJIO SINESTEEN ZERRENDA** 25
8. **BIBLIOGRAFIA** 28

1. AURKEZPENA

Ander, zortzi urteko mutiko bat, eskolatik atera da, ohiko oihu eta zalaparta zaratatsuaren artean. Etxera bidean, berriketan itzuli dira ama eta biak, egunekoak kontari. Halako batean, bere lagun Abdelen ama moja dela azaldu du Anderrek. Ezustean harrapatu du ama hasieran, baina irribarre batez erantzun dio ondoren. Askari unerako geratu dira elkarrizketa eta azalpenak.

Europako gizarte guztiak eta, jakina, euskal gizartea, eta, bereziki, Donostiako gizartea, ere ezaugarritzen duen egitatea agertzen digu bineta etnografiko txiki horrek. Horra erlijio aniztasuna. Anderren amaren kasuan, aniztasun hori berria da, egungo migrazio mugimenduekin lotuko duena; Abdeli eta Anderri dagokienez, ordea, ikasgelan, plazan eta etxean egunero itxuratzen eta gorpuzten ari den bizimoduaren beste osagai bat baizik ez da. Eta halaxe izango da etorkizunean ere. Baina, etorkizun hurbil-hurbil hori gero eta gizarte molde anitzagoek itxuratuko dute, eta gertaleku horrek barruan hartuko ditu elkarrizketa eta elkarrekiko aitorpenak, gatazkak eta ezin-ulertuak edota ezjakintasuna eta ikusezintasunak. Hortxe azalduko dira erronka eta aukera.

Beste prozesu soziokultural batzuetan bezala, lehen urrats moduan, jakin behar dugu zertaz ari garen eta gure errealitate hurbilena; Donostiako hiria, honako honetan; behar bezala hauteman eta ezagutu. Horixe da ondoren aurkeztuko dugun txostenaren helburu nagusia. Erlijioaz eta aniztasunaz diharduen ordenamendu juridikoa berrikusiko dugu lehenik, labur bada ere. Zalantzarik gabe, berealdiko garrantzia du mugitzen garen esparruetako ordenamendu juridikoa ezagutzeak, erlijio aniztasunaren aldeko ekinari ez ezik, erakundeen aldetik bideratu beharreko kudeaketari ere erreparatuko badiogu. Ondoren, aintzat hartuko ditugu gure gizarte europarrotan erlijio aniztasunaren inguruan sortzen eta planteatzen ari den eztabaidaren gaineko gai eta puntu batzuk. Elkarri lotuak dira gai horiek, baina, argiago azaltzeko, honela bereizi ditugu: espazio publikoa eta erlijio espazioa, erlijio aniztasuna, eta erlijioa migrazio eta integrazio prozesuetako faktore gisa.

Egun Donostiak bizi duen erlijio aniztasunaren nolakotasuna deskribatuko dugu aurreneko zati kontzeptualago eta teorikoago horren ondoren, horren ondorio baitira erlijio aniztasunaren arloan aintzat hartu beharreko irizpide eta jarduera esparru nagusiak. Hirian diharduten erlijioak aurkeztuko ditugu, irakurleari datu jakingarri batzuk eskaintzeaz batera; datu horiek hemengo egoera bereziari lotuagoak izango dira batzuk eta orokorragoak, sinesteen izaeraren gainekoak, beste batzuk[1]. Azkenik, Donostiako kultu lekuen zerrenda eguneratua aurkeztuko dugu bukatu aurretik.

2. ESPARRU JURIDIKOA

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak —1948an onartu zuten— pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea jaso zuen 18. artikuluan; kontuan hartzen du, aldi berean, "erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna". Eskubide hori jaso zuten, halaber, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenak (1966) eta Giza Eskubideen Hitzarmen Europarrak (1950). Ondoren, bereziki aipatu beharra dago Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Adierazpena, erlijioan edota sinesteetan oinarrituriko intolerantzia eta diskriminazio molde guztien ezabatzearen aldekoa (1981); eta, era berean, Nazio Gutxiengoen babeserako Esparru Hitzarmena, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 1994an onartua. Hitzarmen horrek ondokoa xedatu zuen: gutxiengo horietako pertsonek beren erlijioaren arabera bizitzeko eskubidea dute eta Estatuek neurri egokiak harrarazteko betebeharra dute, gutxiengoek gizartean berdintasun osoan jardun ahal izateko.

---

[1] Bi dira datu hauen iturri nagusiak. Kontuan hartu dugu, lehenik, *Pluralidades latentes* (2010) liburua, batez ere Deustuko Unibertsitateko adituek osaturiko talde multidisziplinario zabal batek bi urtean bururaturiko ikerketaren emaitza. Proiektu horretan eta beste osagarri batzuetan eginiko lanen artetik, bereziki aipatu beharra dago landuriko datu-basea, Justizia Ministerioaren Erlijio Erakundeen Erregistroan eta Pluralismo y Convivencia Fundazioaren Erlijio Aniztasunaren Behatokian erlijio erakunde ez katolikoei buruz jasoriko informazioa biltzen baitu. Gogoan hartu ditugu, azkenik, Donostiako erlijio sineste nagusien ordezkariekin egin ahal izan ditugun elkarrizketak, datu batzuk behar bezala erkatu eta haien errealitatea zehazkiago ezagutu ahal izateko.

Espainiako ordenamendu juridikoaren esparruan, funtsezko eskubidetzat aldarrikatu zuen Espainiako 1978ko Konstituzioak erlijio askatasuna, erlijio arrazoietan oinarrituriko diskriminazioa galarazita:

1. Gizabanakoen eta erkidegoen ideologia, erlijio eta kultu askatasunak bermatzen dira, muga bakarra izanik adierazteko orduan, legean babesten den herri ordena mantentzeko behar dena.

2. Inor ezin da bere ideologia, erlijio edo sinesmena adierazten behartua izan.

Era berean, akonfesionaltasunaren aldeko aldarrikapena ere egin zuen eta, horren ondorioz, guztiz bereizirik daude, organikoki, Estatua eta erlijio erakundeak:

3. Sinesbide bat ere ez da Estatuarena izango. Herri aginteek Espainiako gizartearen erlijio sinesmenak kontuan hartuko dituzte eta Eliza katoliko eta gainerako sinesbideekin dagozkien lankidetza harremanak izango dituzte.

Nolanahi ere, akonfesionaltasunaren aldeko aldarrikapen hori ez da oztopo, konstituzio testuan adierazten den bezala, Estatuaren eta erlijio erakundeen arteko elkarlanerako, ez eta Eliza Katolikoa gehiengoa dela zehazki aitortzeko ere. Xedatzen duenez, aginte publikoek erlijio askatasunaren arloan inplikatu behar dute. Halatan, erlijio askatasuna ez da egituratzen soil-soilik eduki negatiboko eskubide batez, "baizik eta hedapen positiboa ere badu, eta oztopoen ezabatzea bezainbeste beraren praktikaren aldeko baldintzak sortzea ere eskatzen du horrek " (Ruiz Vieytez eta Intxaurbe Vitorica, 2014: 22).

Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua garatu zuten 1980ko uztailaren 5eko 7/1980 Erlijio Askatasunaren Lege Organikoaren bitartez (EALO). Erlijio askatasunerako eskubidearen edukia jaso zuen EALOren 2. artikuluak, hala norbanakoaren nola talde edo kolektiboen ikuspegietatik: kultu lekuak edo erlijio praktiketarako biltokiak sortzeko eta edukitzeko eskubidea, ministroak izendatzeko eta prestatzeko eskubidea, zeinek bere sinesmena zabaltzeko eskubidea, eta abar. Erlijio askatasunerako eskubidearen jardueraren mugak jaso zituen, bestalde, EALOren 3. artikuluak. Eskubide horren muga da, batetik, besteek beren askatasun publikoetan duten jarduteko eskubidea, eta, bestetik, segurtasun, osasun eta moralitate publikoak babestea. Hala eta guztiz ere, EALOren 2.3 artikuluak (Konstituzio testuarekin bat) hertsatuki eskatzen die aginte publikoei beharrezko neurriak hartzeko establezimendu publiko militarretan, osasun zerbitzuetan eta presondegietan erlijio zerbitzuetara joatea erraztu eta ikastetxe publikoetan erlijioa irakastea bideratzeko, bai eta horiek eragozten dituzten trabak kentzeko ere.

Ondoren, eliza, sineste eta erlijio komunitateen nortasun juridikoa arautu zuen EALOk. Erregistro publiko bat sorrarazi zuen Justizia Ministerioaren kargura[2], haietako bakoitzaren izena, identifikaziorako datuak, jarduera erregimena eta ordezkaritza organoak behar bezala jasotzeko. Barne mailan, aldiz, autonomia osoa dute elizek eta erlijio komunitateek beren antolamendurako eredua eta moduak bideratzeko.

EALOren 7.1 artikuluan xedatu bezala, elkarlanerako hitzarmenak sinatu ditzake Estatuak "sustrai sendoko" erlijioekin. Izaera hori bereganatu ahal izateko, besteak beste, izena emana behar dute erlijioek Erlijio Erakundeen Erregistroan. Salbuespena da Eliza Katolikoaren kasua, nazioarteko hitzarmen baten mailakoak baitira 1979ko urtarrilaren 3an Estatuak Vatikanoarekiko elkarlanari begira sinatu zituen akordioak. Izan ere, akordio horien indar juridiko pasiboa handiagoa da gerokoan beste erlijio batzuekin sinaturiko hitzarmenenak baino, eta askoz ere zabalagoa eta zehatzagoa da, era berean, akordio horien edukia.

Hona hemen, erlijioek Estatuarekin batera hitzar dezaketen esparru juridiko arauemailea kontuan harturik, gerta daitezkeen lau egoerak:

1. **Estatuarekin elkarlanerako akordioak sinatu dituzten erlijio erakundeak.** Multzo honetakoak dira honako erakunde hauek: FEREDE (Federación de Entidades Religiosas Evangélicas de España / *Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioa*), CIE (Comunidad Islámica Española / *Espainiako Islam Komunitatea*) eta FCJE (Federación de Comunidades Judías de

[2] Ikus http://maper.mjusticia.gob.es/Maper/RER.action.

España / *Espainiako Komunitate Juduen Federazioa*). "Sustrai sendoko" erlijiotzat hartuak dira horiek guztiak, eta 1992an sinatu zituzten dagozkien akordioak, 1992ko azaroaren 10eko 24/1992, 25/1992 eta 26/1992 legeek berretsiak. Dagoeneko aipatuta dugu zein alde dagoen hitzarmen hauen eta Espainiak eta Vatikanok berretsi zituzten akordioen artean. 1992ko akordioek sineste guztiei eskaini beharreko tratamendua maila berekoa izateko borondatea agertu arren, garbi dago Espainiako gehiengoaren erlijioari emaniko tratamendua bestelakoa dela.

2. **Sustrai sendokotzat harturiko erlijioak**. Gerokoan elkarlanerako hitzarmenak sinatzeko ateak zabalik uzten ditu aitortza hori lortu izanak. Justizia Ministerioaren Erlijio Askatasunerako Batzorde Aholkulariaren aitorpen batek aitortzen du "sustrai sendokoa" izate hori, eta, besteak beste, ezinbestekoa da, horretarako, Erlijio Erakundeen Erregistroan izena emana egotea. Sustrai sendoko erlijiotzat hartuak dira ondokoak: AESJE edo Mormoien Eliza (2003), Jehovaren Lekukoak (2006), Budistak (2007) eta Eliza Ortodoxoa (2010).

3. **Erlijio Erakundeen Erregistroan izena emaniko elizak, sinesteak edo komunitateak**. Zientziologiaren Elizaren edo Bahá'í Komunitateen kasua da.

4. **Izena eman ez duten erlijioak**. Erregistroaren berri ez dakitelako, edo sinestunek horrela jokatzea erabaki dutelako, erlijio edo sineste batzuek ez dute izena eman.

Euskal autonomia edo udal mailako araudietan ez dugu aurkitu nazioarteko edo estatu esparruetan landutako gaien garapen normatiborik. Ongi gogoan eduki beharra dago, lehenik, Eliza katolikoarekiko harremanak aspaldidanik estatuaren ikuspegitik landu izan direla. Kontuan hartu beharra dago, bestalde, erlijioaren inguruko gaiak migrazioaren fenomeno zabalagoarekin lotu izan direla, eta migrazioa dugula, hain zuzen ere, aginte zentralei oinarritik egokitutako gaia. Horrek azaldu lezake zergatik ez diren arduratu autonomietako eta tokiko erakundeak premia horretaz eta zergatik ez duten hartu erlijio askatasunerako eskubidea zabalago garatzeko aukera emango luketen administrazio edo araudi mailako neurririk, batez ere, gure gizartean gutxiengoa diren erlijioak bizi dituzten pertsonen kasuan. Hala eta guztiz ere, autonomia eta toki erakunde horiek eskumena (lege-emailea edo betearazlea) dute zehar izaerako gai ez gutxitan, eta gai honetan bideratu duten abstentzionismo tradizional hori birplanteatzera bultzatu beharko lituzke horrek erakunde autonomikoak.

3. ESPAZIO PUBLIKOA ETA ERLIJIOA

Erlijioak eta espazio publikoak duten loturaren gaiari heltzen diogun aldi oro, ezinbesteko gertatzen zaigu, ezertan hasi aurretik, sekularizazioaren teoria berrikustea. Izan ere, gizarte zientzien diskurtsoan ez ezik, erlijioa esparru pribatura zokoratzen duen kanon liberalean —egungo demokraziaren hauspoa— ere barneratu da teoria hori. Sekularizazioaren teoriaren arabera, labur azalduta, egungo gizarte modernoetan erlijioak ez du aurrerantzean edukiko orain arte denaren azalpena izateko eta giza bizitza zentzuz hornitzeko aukerarik; arrazionaltasun zientifikoak eta praktikoak hartu baitu haren ordea. Arlo autonomo eta independentetan banatu eta sailkatu da aurreko mundua, dagoeneko erlijiotik at bizi dira arlo haiek, eta beste alor edo esfera autonomo berri bat baizik ez da gaurgero erlijioa. Casanova-k azaldu duen bezala (2000), sekularizazioaren teoriaren balioa aztertzeko, komenigarria da aldez aurretik hiru osagai bereiztea: erlijioa besteetatik bereizitako esfera autonomoa bihurtu izana dugu haietako lehena. Egia da, bereizte prozesu honen arabera, esfera politikoa erlijiotik banatu egin dela eta guztiz bereizi direla, azkenean, Eliza eta estatu agintea.

Bestalde, erlijio praktika eta sinesteen gainbehera aurreratu zuen teoria horren bigarren osagai nagusiak. Gainbehera horretatik abiaturik, hain zuzen Weber-ek adierazi zuen "munduaren xarma galtze" hartatik, halako lotura bat zehaztuta dago gizarteen modernotasunaren eta sekularizazio mailaren artean; halako moduan non zenbat eta modernoagoa den orduan eta gizartea sekularizatuagoa. Hala eta guztiz ere, ohar egiten du Casanova-k, tesi hori egia dugu Europako gizarteen kasuan, baina ez, adibidez, AEB, Latinoamerika edo Japoniaren gisako

gizarte moldeetan. Eta, batez ere, ez du balio gizarte ez kristau gehienetan. Badirudi, beraz, Europa salbuespena dela horretan, eta ez araua, arin uste izan ohi dugun bezala.

Azkenik, erlijioaren arlo pribatura igarotzeko prozesu baten antzera aurkeztu ohi dute sekularizazioa. Izan ere, halaxe gertatu zen Europako kasuan, pribatizatu egin zela erlijioa, norbanakoen kontzientziaren planora zokoratu zen heinean. Ezinbestekoa izan zen urrats hori ematea historian Estatua eta erlijioaren banaketa kontsolidatu ahal izateko. Halaz ere, Estatuaren eta erlijioaren arteko bereizkuntza guztiz sendoa den honetan, ezinbestekoa ote zen erlijioa arlo pribatura igarotzea? Ez ote zen nahikoa erlijioa bereiz edukitzea? Garrantzitsua da aldea, zeren erlijioa bereiz egoteak —hau da, politika eta erlijio esferak autonomoak izateak— ez baitzuen aurrez eta ezinbestez erlijioak zertan ikusezin bihurtu. Areago, gaur egun bizi dugun prozesuan, espazio publikoan beren lekua aldarrikatzen ari dira erlijioak. Eta, hain zuzen ere, sekularizazioaren teoriak uste zuenaren bestaldera, erlijioaren *ber politizazioaz* eta *des pribatizazioaz* mintzatzera darama egun aldarrikapen honek. Prozesu honetan, Casanova-k aztertu duen bezala (2001), funtsezko eginkizuna jokatzen ari da globalizazioa, hau da, egungo migrazio mugimenduak partaide dira prozesu konplexu horretan.

Hala eta guztiz ere, pertsona askoren iritziz, ezinbestez mugatzen du giro pribatura erlijioaren autonomiak berak. Eta, honetan, beste esparru batzuetan bezala, espazio publiko neutro bat aurresuposatzen da, eta hartara biluzik sartzen dira herritarrak, nork bere jantzi identitatezkoak (erlijiosoak, etnikoak, sexualak) eta kulturalak pribatutasunaren esferan utzi ondoren. Halere, arazo muntadunak planteatuko dizkigu gogoeta horrek, honako bi gogoetagai hauek kontuan hartzen baditugu: lehenik, espazio publikoa espazio pribatutik bereizten duen marra ez da aurkeztu diguten bezain garbia eta zurruna. Izan ere, azken urteotan, agenda publikoaren osagarri bilakatu dira, tradizioaren arabera, oraintsu arte esfera pribatukotzat hartutako gaiak: ekologia, emakumearen egoera, sexu aukerak, eta abar. Pentsamendu kritikorako korronte batzuek azaldu bezala, arlo politikoa ez da esfera publikoan (Estatuan) ahitzen. Ugari dira gizarte bizitzan, etxean, ekonomian, gizarte eta kultura ekimenetan eta abarretan despolitizaturik ez dauden esferak. Eta erlijioa da, zalantzarik gabe, esfera horietako bat. Halatan, guztiz ezabatu beharko litzateke gure mendebaldeko gizarteetan honen geuretuta dugun dikotomia hori: herritarren *locus* edo leku publikoa gauzatzeko gunea izatea esparru politikoa, eta, esparru pribatua, berriz, identitateak, sinesteak eta zirrarak gordetzeko eta mugatzeko aldea.

Bigarrenik, maiz ahanzten du jarrera horrek giza pentsamendua, funtsean, soziala eta publikoa dela[3]. Gizabanakoak pertsona gisa egituratzen duena — etnia, sexu edo kultura osagaiak— besterik gabe baztertu edo zokoratu ezin duen bezala, pertsonak ezin dira geratu, beste gaberik, haien bizitzei eraketa eta zentzua ematen dizkien erlijio sinesteen, balioen eta arau sakonen sistemarik gabe. Hau da, esfera publikora ez dira inguratzen beren sineste sistemak eta mundu ikuskerak alde batera utzitako banako edo herritar neutroak. Herritar laikoek herritar erlijiosoei egiten dieten galdea —hau da, esfera publikoan sartzen direneko sinesteak bazter utzi eta mintzaira eta jarrera sekular hutsak erabiltzea— ez da, zentzu honetan, soluzio onargarri bat. Parekh-ek adierazi bezala, kontuan hartzen badugu "herritartasuna ez dela bere balioak dituen bizi esparru itxi bat, beste baliabide bat baizik, horren bitartez gizakiek beren sineste sakonenak azalduko eta biziko baitituzte", ezin daitezke eduki espazio publikotik at herritar gehienak kezkatzen dituzten gaiak (2005: 475). Beste desberdintasun batzuen aurrean bezala, aldeak sortzen badira gizartearen gehiengoarenak ez bezalako gutxiengo etniko edo kultura desberdin bateko kide izategatik, zera egin behar luke, marjinatu gabe, gizarte demokratiko eta askotariko batek: zuhurtziaz jokatu eta gutxiengo horien aitortza, begirune eta (ahal den neurrian) egokitzearen aldeko formula politikoak diseinatu.

Orduan, erlijioa esfera pribatura zokoratu eta Estatu laikoa erlijioaren aurrean erabat itsu eta axolagabe iraun behar duela aldeztu baino, Estatu laiko bat ulertu eta aldeztu genezake, zeinak kontuan hartzen duen herritar batzuen artean erlijio badela izan, bai eta egitate horri laguntza eta babesa eskaintzen ere. Zentzu horretan, ezerk ere ez luke Estatua oztopatu beharko erlijio komunitateei diru laguntzak edo baliabide jakin batzuk bideratzeko unean. Batek baino gehiagok argudiatu ahal izango luke funts publikoak ez direla sektore batzuen interesen alde

[3] Zera azpimarratu nahi dugu horrenbestez, pertsonen ekintzak zentzuz hornitzen diren testuingurua dela batez ere kultura. Halatan, Geertz-ek proposatu duen bezala (1997), keinu soil batek adiera ugari eduki ditzake testuinguruen eta partaide garen gizartean publikoki eraiki dugun kodearen arabera.

erabili edo haien zerbitzuan egon behar. Baina, orduan, ezin finantza litezke unibertsitateak, museoak edota arte galeriak. Bestalde, bere burua inklusibotzat izanda, desberdintasunen arazoari behar den moduan heldu nahi dion herritargo berri baten ikuspegitik, desberdintasuna aitortu eta hartara egokitzeko praktika politikoak bideratu nahi baditugu (haren jatorria, kultura, etnia, sexua eta abar zein diren axola ez duela), ez dago garbi zergatik ez litzatekeen jokatu beharko erlijioaren arloan modu berean.

Alabaina, Ruiz Soroak ohar egin duen bezala (2010), politika publiko horiek begien bistako muga batzuk hartu beharko lituzkete aintzat erlijio desberdintasunari dagokionez:

1. Lehenik, **tratu berdintasuna bermatu behar da erlijio guztien aurrean**, hau da, egungo gizarteak gero eta indar handiagoz ezaugarritzen duen erlijio aniztasuna garantizatu.

2. Bigarrenik, **erlijio askatasunaren printzipioari zentzu negatiboan eutsi behar zaio, haren aurreko begirunea bermatuz**, hau da, erlijioso ez den herritarra, haren bizitzan erlijioa tartean sartzeko saio orotatik babestu behar da.

3. Eta, azkenik, bada oinarrizko printzipio bat inolaz ere hautsi ezin dena: z**einahi erlijio eraginetatik kanpo izan beharra dago espazio publikoaren egitura arauemailea**.

4. ERLIJIO ANIZTASUNA

Bereziki aipatu dugu aurreko atalaren bukaeran aginte publikoen betebeharra: erlijio guztien aurrean tratu berdintasuna bideratzeko duten betebeharra; hau da, gure eguneko gizartean gero eta modu nabarian ezaugarritzen ari den erlijio aniztasuna bermatzea. Ageri-agerikoa izango da agian, baina gogora eta beti presente izan dezagun, askotariko kulturak eta erlijioak dituen errealitatea da Europa, eta eztabaidek eta gatazkek markaturiko bilakaera historiko luze baten ondorioa da aniztasun hori, non erlijioek funtsezko eginkizuna izan duten. Halatan, iraganeko emaitza dira gizarte europarrek erlijio egitatearen aurrean agertutako moduak, baina halakoxea dugu, halaber, egungo erlijio aniztasuna, gero eta ugariagoa, hein batean, Europako tradizio judu-kristautik kanpo dauden erlijio adierazpenen inportazioaren ondorioa ere badena. Moreras-ek adierazi duen bezala (2006), desberdin eragiten du erlijio eta kultu adierazpen horiek inportatzeak. Alde batetik, erlijio esperientzia berriak azaldu dira norbanakoen mailan, gertatzen ari diren gogo edo espiritu brikolaje prozesuetan. Aipagai ditugu, oraingo honetan, ekialdeko tradizioei atxikitako erlijio elementuak, hala nola, budismoa, meditazio praktikak, Tai-Chia, eta abar.

Bestalde, populazio berrien egokitze prozesuen eskutik hurbildu zaizkigu erlijio kultu eta adierazpen berri batzuk, pertsona horiek, egokitu diren toki berrian, bere erlijio espazioak eta praktikak berreraiki dituzten (edo berreraikitzen saiatu diren) aldetik. Egokitze prozesu horietan, ongi dakigu ez direla hautematen eta sailkatzen erlijio adierazpen eta kultu berri guztiak espazio publikoan modu berean. Harrera handiagoa egiten diete batzuei eta erresistentzia handiagoarekin topo egiten beste batzuek. Espazio publikoaren ustezko neutraltasunaren gaineko argudioen bitartez zuritu edo baliozkotzat hartu ohi dute beti erresistentzia. Aurreko atalean adierazia dugu, honezkero, zeinen engainagarria izan daitekeen gogoeta hori. Behin eta berriro oroitarazi beharko dugu Estatua laikoa dela, baina gizartea ez dela ez laikoa ez erlijiosoa ere, askotarikoa baizik.

Bestalde, ongi gogoan izan beharra dago erlijio aniztasunari buruzko eztabaida honetan, neurri handi batean, gizarte bakoitzak erlijioari espazio publikoan eskaintzen dion lekuaren baitan egongo direla tokian tokiko gizarteek erlijio berriez dituen hautemateak. Hemen, berriro ere, ispiluarena jokatzen du egungo migrazio mugimenduen eskutik datorren aniztasunaren aurrean den norgehiagokak tokian tokiko gizarteetan, aurre egin behar baitiete, aldi berean, beren historiari eta beren kontradikzioei. Interesgarria da euskal kasuan azken adierazpen hori, kartsuki markatzen eta pizten baitu gure sekularizazio prozesu bereziak erlijioaren inguruko eztabaida. Antiklerikalismoaren poderioz –ez dezagun ahantz erlijio nagusiaren sekularizazio prozesu ezak sorrarazi duela antiklerikalismo hori–, erlijioaren eta egiaren monopolioa beretzat gordetzen tematu den Eliza katolikoaren aurka gauzatu da gure gizarteko sekularizazio prozesua

(Pérez Agote, 2007: 68). Hemen, erlijioaren ukazio gisa hartua da laikotasuna, eta ezerezean gelditu da, horrenbestez, erlijio aniztasunaren gaiari heltzeko aukera. Gure ustez, komenigarria da arazo hori gogoraraztea, eztabaida lausotzen baitu eta erlijio aniztasunari muturreko jarrerarik gabe ekiteko aukerarik gabe uzten.

Esanak esan, zintzoki aitortu beharra dago gizarte hartzaileek ez dituztela aintza hartze erlijio eta identitate guztiak modu berean. Zalantzarik gabe, eta horretan euskal gizartea ez da salbuespena, modu negatiboan hautematea eta aintzat hartzea sorrarazi ditu mundu musulmanak, eta, horien oinarrian, estereotipo historikoak bezala agertzen dira egungo nazioarteko panorama politikotik eraikitakoak ere. Egun, ez litzateke gehiegikeria izango islamofobiaz mintzatzea gizartean islamaren adierazpenen eta erlijio kidego horretako pertsonen aurrean suma daitekeen arbuioari buruz ari garenean. 2011n Gasteizen edo Bilbon[4] gertatutakoak gizarte europar guztietan, modu biziagoan edo ahulagoan, abian den prozesuaren adibide txiki bat baizik ez dira.

Moreras-ek arrazoiz adierazi bezala (2006), badirudi gure gizarteak migrazio mugimenduen zuzeneko ondorio gisa jaso duela islamaren presentzia. Autoreak argudiatu duen moduan, pertzepzio horren ondorioz, integrazioaren (asimilazioaren) ideiaren ingurura bideratu da eztabaida sozial eta politiko guztia. Testuinguru horretan, funtsezko eta mugiezintzat jotako kultura elementu batzuk direla medio, erkidego musulmanaren aurrean eraiki eta fokuratu da, batez ere, integratzeko ezintasunaren ustea. Prozesu horretan, hona hemen zer bihurtu ditu erlijio faktoreak –gure gizartean aintzat hartutako moduan– sineste horretako pertsonak: *"sinesle konpultsiboak eta irrazionalak, dituzten fede eta erlijio praktikek mugatuak"* (Moreras 2005: 237). Halaz ere, aurreko orrialdeetan adierazi dugun bezala, sustrai sendoko sinestetzat eta, beraz, erlijio gutxiengo espainiartzat hartu zuen Espainiako estatuak islama 1989an. Hortaz, kontua ez da integrazioa, gizarteak eta Estatuak kultu hori gizarte espainiarraren osagaitzat hartzea eta horrela onartzea baizik.

Badirudi, beraz, erlijio musulmanaren eta gainerakoen gaineko ezagutza dela, hain zuzen ere, gizartea egiaz askotarikoa izateko bete behar duen oinarri nagusietako bat. Egiazko ezagutza batez ari gara, multikulturalismo naif batetik, kultura eta erlijio adierazpenak hutsal eta folklore bihurtzeko joera duen multikulturalismo batetik, harantz joko duen errekonozimendu batez. Zera da, azken batean, kontua, *"hainbat kultur eta [erlijio] erreferentzia partekatzen dituzten kolektiboen bizikidetzari begira aintzat harturiko arazoei heltzea, multzo nagusiaren printzipioen arabera gobernaturiko gizarte baten esparruan"* (Moreras 2006: 96). Berriro ere argudia lezakete gizarte europarren espazio publikoan ez dagoela erlijiorako lekurik, baina kontradikzioan ezartzen gaitu juzgu horrek, espazio publiko hori Europako erlijio tradizio nagusien erlijio erreferentziaz eta ikurrez beterik dagoela ohartzen bagara.

5. ERLIJIO FAKTOREA MIGRATZE ETA INTEGRAZIO PROZESUETAN

"Nomada bihurtu dira erlijioaren mugak "
M. Cantón

Egia da guztiz, eta azpimarratzekoa beti, gure gizarte europarretako aniztasun sozial, kultura eta erlijiosoa ez dela egungo migrazio prozesuen emaitza edo ondorioa. Askotariko gizartea izan gara beti, aniztasun hori identitate politiko eta kultural homogeneoak eraikitzeak gordean edo ezkutuan eduki arren. Hala eta guztiz ere, egitate hori azpimarratuagatik ere, biziro onartu beharra dago erlijio aniztasuna are eta handiagoa dela gaurko egunean, eta aldaketa hori hertsiki loturik dagoela azken hamarkada hauetako migrazio mugimenduekin. Aitortza hori

[4] "Gure auzoan meskita egokitzearen aurka. Ez gaitzala inork alda" lelopean, mobilizazio eta protesta kanpaina bati ekin zioten Bilboko Basurto auzoko bizilagunek 2011ko apirilean. Auzoan meskita bat eta kultura gune musulman bat egokitzeko aukera zegoen ondoezaren jatorrian. Urte hartan berean, polemika beteko giroan ekin zioten Gasteizen meskita bat eraiki eta irekitzeari, eta manifestazio batzuk egin zituzten asmo horien aurka Zaramaga auzoko biztanleek. Gasteizko kasuan, behartu ere egin zuten meskita egokituko zen etxabeko sarrera eta txerrikiak eta odola jaurti zituzten barrura. Salatu egin ziren ekintza haiek eta kondenatu ere egin zituzten prozesuan parte ziren alde guztiek.

garrantzitsua da, betiere, erlijioak maila globalean eta hurbilean duen garrantzia behar bezala aztertu eta ulertu nahi badugu.

Arazoari ikuspegi globalago batetik helduz gero, erlijioa ez da bereziki gogoan izan, ez dute hartaz orrialde asko idatzi, migrazioaren inguruko ikerketen alorrean; batez ere kontuan hartzen badugu erlijioaren aldean ekonomiari, politikari, kulturari eta beste aspektu batzuei emandako garrantzia eta, ondorioz, jasotako aitortza. Halere, autore bat baino gehiago ohartu da, azkenaldi honetan, bereziki, erlijioa egungo migrazio prozesuetan jokatzen ari den paper garrantzitsuaz (Ebaugh eta Saltzman 2002; Levitt 2004, 2007). Zentzu horretan, kontuan hartzen baditugu erlijio askoren unibertsaltasunerako asmoak, erlijioa aspaldidanik izaera globaleko fenomenoa dela esan genezake, ezbairik gabe. Alabaina, izaera unibertsal horretaz gain, ongi gogoan izan beharra dago nazioen gainetik zabaldu den fenomenoa dela erlijioa, ez baita, dagoeneko, nazio komunitateen integrazio eta identitate elementu gisa aintzat hartzen den zerbait. Izan ere, Eliza nazionalak ez dira, gaurgero, Estatu nazionalaren berezko osagai gisa diharduten kultu komunitateak, ez, bederen, garai batean hartu bezala, eta, nazioen gainetik, nortasun transnazional berria bereganatu dute egun (Casanova 2001).

Horrexegatik, gaurko erlijio prozesuak ulertu ahal izateko, nazio ikuspegitik harantz jo beharra dago, izan ere: *"erlijioa, kapitalismoa bezala, ez baita legezko lurralde edo erregimen berezi batean kokatzen edo egokitzen, ez baita kanpoko politika, kultura edo etika printzipio batzuetara mugatzen. Kultura erreferentziak, zenbaitetan ezaugarri etnikoek, hizkuntzak edo nazio-estatuaren mugek zedarriturik ageri direnak, nazio lurraldeetatik askatzen edo bereizten hasiak dira eta, beraz, erlijio praktika nazionalaren gaineko eztabaidak ez dira horren bidezkoak eta arrazoizkoak"* (Levitt 2007: 69). Testuinguru honetan, erlijio praktika transnazionalen —hau da, migratzaileek beren erlijioa mugen artean bizitzeko dituzten era eta moduen— garrantzia azpimarratu du bereziki Levitt-ek. Autore horren arabera, zerikusi handia dute praktika horiek gertatzen diren tokietako antolamendu testuinguruekin, haien arabera gauzatzen baitira, hein handian. Adibidez, Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Elizaren egitura transnazionalari esker bizi dezakete mundu osoko familiek beren erlijiotasuna, nazio eta estatu mugen gainetik eta haietan barrena.

Erlijioak migrazio sareen egituratze prozesuan duen eginkizuna da kontuan izan beharreko beste gai garrantzitsu bat da, begiradarik globalena tokian tokikoarekin artikulatzen duenez gero, hain zuzen ere. Jakina den bezala, denboran eta espazioan barrena gorpuzten dira migrazio kateak eta sareak, ahaidetasunak eta adiskidetasunak edota komunitate edo herri bereko jatorriak sorrarazten dituzten loturen bitartez. Izan ere, kate eta sare horietako asko pertsonak eliza edo sineste berekoak izategatik sortuak dira. Erlijio sineste jakin batekoa izateak erraztu egiten du pertsona baten migrazioa, jomugara iritsi eta sineste bereko pertsonek hartuko dute-eta, eta beraiek emango dizkiote aurreneko informazioa, kontaktuak, baliabide materialak, eta abar.

Azkenik, eta ez da munta txikiagokoa, ikuspegi hurbilago edo lokalago batetik, oraingoan, hortxe dugu erlijioak pertsona migratzaileen integrazio prozesuetan duen eginkizuna. Aurren-aurrenik, esan dezagun ezen pertsona migratzaile sinestun askoren kasuan erlijiotasuna garrantzi handiko egitatea dela eta, esan gabe doa, erlijio izaera hori ez dela jatorrizko lekuan gelditzen, baizik eta pertsonarekin batera, beraren dimentsio indibidualenean (espirituan eta identitatean) mugitzen. Baina, dimentsio indibidualari hertsiki loturik, betiere dimentsio soziala edo komunitarioa ageri zaigu. Pertsona migratzaile sinestunak bere erlijiotasuna adierazi nahi izaten du elizen, entitate eta erakundeen bitartez, eta horiek direla bitarte, erlijioa praktikara eraman dezakete. Eta une horretan agertzen da pertsona horren dimentsio komunitarioa; hartan, erlijio praktikarako espazioa ez ezik, gizarterako espazioa ere topatzen du, eta espazio horretan informazioa bilatu eta partekatzen du, hau da, izan litezkeen lan eta bizilekuen edo ahaideen nahiz bizilagunen gaineko berri ematen diote, tokian tokiko erakundeei eta jo beharreko leku garrantzitsuei eta abarri buruzko informazioa jasotzen du. Argi ikusten dugu, horrenbestez, elizen eta erlijio erakundeen gizarte antolakuntzari esker, nola jasotzen duten laguntza pertsona migratzaileek beren premia afektibo eta materialetan ere, eta laguntza iturri garrantzitsua izaten dira erlijio erakundeak askotan pertsona migratzaileen arazo praktikoen aurrean.

Informazio honekin guztiarekin batean, partekaturiko erlijioak eskaintzen eta sorrarazten duen gizarteratze guneak beste hauek gune ere hartzen ditu: nahitasunak adierazi eta jasotzea,

ezagutzeak egitea, ama hizkuntzan aritu eta hizkuntza berria ezagutzea, seme-alabak ospakizunen bidez atzean utzitakoarekin lotzea eta abar. Hain da handia gune horren garrantzia non jatorrizko lekuetan erlijio praktika bazterturik zuten pertsona asko eta asko jomuga berrian erlijiora hurbiltzen baitira berriro.

Migrazio testuinguruetako integrazio prozesuei buruz ari garelarik, kontuan hartu beharreko beste osagarri guztiz garrantzitsu bat dugu: gizarte hartzailean aniztasunaren eta pertsona migratzailearekiko eraikitako irudiaren inguruan diren pertzepzioa eta gogoeta. Merezi du, honetan, Moreras-ek (2006) migrazioei eta erlijio aniztasunari eskaini zien ikerketan eginiko hausnarketa. Autore horrek argudiatu duenaren arabera, pertsona migratzaileen ibilbideak eta gizarteratze prozesuak azaltzeko faktoreak bilakatu dira kultura eta erlijioa azken urteotan. Halatan, garrantzia galdu dute, horretan, beste faktore esanguratsu batzuek, hala nola, ekonomiak, lanak, gizarteak eta politikak. Faktore horiek pisua galduz joatearen ondorioz, "kultur paradigma" dei genezakeena sortu da: haren arabera, aniztasunarekin eta migrazioarekin loturiko arazo guztiak kultura osagaiaren bitartez azaltzen dira, lehenik, eta erlijioaren bidez, bigarrenik. Hiru funtsezko oker dakartza horrek, Moreras-ek adierazi bezala:

1. Kultura edo erlijioa aldaketarik gabe transplantatzea: hau da, pertsona migratzaileek jomuga duten leku berrietan beren jatorrizko erlijio erakundeak ezertan ere aldatu gabe birlandatzen eta berreraikitzen dituztela uste izatea. Prozesu hori askoz konplexuagoa da, eta dimentsio eraldatzaile bat uzten du, beti, agerian. Kultura praktikek eta erlijio erritoek esanahi berriak hartzen dituzte migrazioaren testuinguruan berritzen direnean.

2. Migratzaileen taldeen barruko homogeneotasuna: uste dugu (eta neurri horretan irudikatu ere egiten ditugu) migratzaileenak talde berdinak direla, bat direla beti haien kultura ereduak eta erlijio praktikak. Iritzi ohi izaten dugu nazionalitate jakin bat edo, askotan gertatzen den bezala, nazionalitate horrekin loturiko erlijioa direla kausa, ezinbestez dagozkiola talde jakin bati halako erlijio praktika eta halako ustezko jokaera, kultura eta / edo erlijio osagai jakin batzuetan oinarrituta.

3. Talde edo kolektibo horien barruko identitateak eraikitzen kultura eta / edo erlijio osagaiek duten zentraltasuna. Erlijioak talde identitateen eraikuntzan eta taldearen kohesioan duen garrantzia ukatu gabe –bereziki nabarmendu dituzte ezaugarri horiek erlijioaren ikertzaile klasikoek–, esan behar genuke ezen, egun, izate hori, gutxienez, askoz konplexuagoa dela. Identitateak oso bestelako lekuetatik abiaturik eraikitzen dira, ez dira homogeneoak, ez dira trinkoak, eta taldearen beraren barnean erantzun eta birnegoziatu egiten dira, ez gutxitan.

   Gure gizarteen ardatz diren askotarikotasunari eta aniztasunari heltzeko unean, gogoratu beharra dago, betiere, gizarte kohesioa ez dela herrien erlijio eta / edo kultura antzekotasunaren ondorioa, baizik ere demokrazia maila handiagoarekin edo txikiagoarekin, berdintasun sozioekonomikoarekin eta partaidetza politikoarekin erlazionaturiko zerbait.

6. ERLIJIO SINESTEAK DONOSTIAN

Hainbat dira egungo egunean Donostiako paisaia sozial, kultural eta sinbolikoa osatzen duten erlijio sinesteak. Oso gordean daude horietako batzuk, batez ere sineste katolikoaren aldean, hiriaren sorreratik hiriko historian beti presente egon baita fede kristau katolikoa. Presentzia handiagoa dute beste batzuek, beharbada, donostiarron iruditeria sinbolikoan. Nolanahi ere, hiria, gizarte donostiarra, askotarikoa da erlijioaren arloan.

Gizarte oso sekularizatu baten testuinguruan —euskal gizartea— ageri zaigu erlijio aniztasun hori. Itxura guztien arabera, modu esanguratsuan arintzen ari da erlijio katolikoaren pisua etorkizuneko belaunaldiei begira. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak 2012an Erlijio Aniztasunari buruz bideratu zuen Ikerketak[5] eskainitako datuen arabera, katoliko praktikatzailetzat jotzen du

[5] Ikus: http://www.observatorioreligion.es/upload/72/52/Diversidad_Religiosa.pdf.

bere burua Euskadiko herritarren % 26k, eta, % 47k, katoliko ez praktikatzailetzat. Biztanleriaren % 2k dio beste erlijio batzuk dituela, eta % 25 kokatzen da ateo, agnostiko edo ez sinestunen artean. Beste erlijio bat dutela dioten pertsonen artean, datuen arabera, %26 dira protestanteak edo ebanjelikoak; % 16, budistak; % 13, islamdarrak; % 6, ortodoxoak; % 5, Jehovaren Lekukoak, eta beste erlijio batzuetakoak, % 11.

Etorkizunari begira, interesgarria da Gazteen Euskal Behatokiak azterturiko datuak kontuan hartzea. Haien arabera, Euskadiko gazte katolikoen kopurura % 59tik % 34ra jaitsi da 1998 eta 2012 bitartean. Aldi berean, hazi egin da beren burua ateo, agnostiko edo erlijioaren aurrean axolarik ageri ez duten pertsona gazteen kopurua. Horrekin batera, interesgarria da, era berean, beste erlijio batzuetako sinestun direla dioten gazteen portzentaia arian-arian hazi izana: %, 1 1998an; % 2, 2008an, eta, % 5, 2012an.

Datuen arabera, beraz, badirudi erlijio komunitate berriak egokitzen ari direla erlijio praktikan oso maila apalak ageri dituen euskal gizarte horretan bertan, erlijio aniztasunaren printzipioa eduki esanguratsu batez hornituta. Gizarte testuinguru berean eta batera gertatzen ari diren bi prozesuren aurrean gaude, horrenbestez: sekularizazio prozesua eta erlijio aniztasunerako prozesua. Egoera honetan gaudela, egun Donostian diharduten erlijio sineste nagusiak aurkeztuko ditugu ondoren. Hona hemen bi koadro, hirian presentzia duten erlijioak eta erlijio sinesteen kultu lekuen kopuruak banan-banan jasota. Ondoren, haietara hurbilduko gara, bakoitzaren deskripzio laburra egin eta Euskadin nahiz Donostian duten presentziaren ezaugarri bereziak ezagutzeko.

1. koadroa – Donostian presentzia duten erlijioak

Kristautasuna	**Ortodoxoa** **Katolikoa** **Erreformatua eta Ebanjelikoa**
Kristau inspiraziokoak	**AESJE** **Zazpigarren Eguneko Eliza Adbentista** **Jehovaren Lekuko Kristauak**
Budismoa	**Tibetarra** **Zen**
Islamismoa	**Sunia**
Baha'i Fedea	
Judaismoa	

2. koadroa – Donostiako udalerrian kultu lekuak dituzten erlijio komunitateak erlijio sinesteen arabera

Sinestea	**Kopurua**
Kristautasun Katolikoa	**27**
Kristautasun Erreformatua eta Ebanjelikoa	**6**
Kristautasun Ortodoxoa	**1**
Zazpigarren Eguneko Eliza Adbentista	**1**
Jehovaren Lekuko Kristauen Eliza	**3**
AESJE – mormoiak	**1**
Budismoa	**5**
Bahá'í	**1**
Islam	**1**

Iturria: Geuk egina

KRISTAUTASUNA:

Kristautasunaren historian, berezko tradizioak eta sinesteak garatu dituzten talde desberdinak sortu dira historia eta kultura testuinguru jakin batzuetan; hau da, Nazareteko Jesusen bizitzan eta irakaspenetan oinarritu eta Itun Zaharrak nahiz Itun Berriak jasotzen duten kanon biblikoaren bidez aurkezturiko erlijio abrahamdar monoteistaren baitan. Gaingiroki, Erreformatik aurrera, hiru adar nagusitan banatua ageri zaigu Kristautasuna: ortodoxoak, katolikoak eta protestanteak. Ekialdeko kristautasuntzat har genezakeenaren barrukoak dira lehenengoak, eta, bigarrenak, mendebaldeko kristautasunaren ordainekoak.

1. **Ortodoxoak**

Nazio oinarria duten elizen arteko komunitate kristau batek osatzen du Eliza Ortodoxoa. 1054an banatu ziren ortodoxoak Erromako Elizatik, eta, garai hartatik aurrera, ez dute arrakastarik izan Erromako elizarekin berriro batzeko egin diren saioek. Egun, 14 eliza autozefalok eta eliza autonomo batzuek osatzen dute Eliza Ortodoxoa.

Azken urteotan gertatu diren migrazio prozesuen ondorio da eliza ortodoxoek Euskadin duten presentzia. Egun, bost eliza ortodoxok dute ordezkaritza Euskadin, eta Eliza Ortodoxo Errumaniarra da, hain zuzen ere, Donostian finkatua. Eliza Ortodoxo Errusiarra —Errenterian kapera bat du—, Eliza Ortodoxo Georgiarra —batez ere, Araban eta Bizkaian kokatua—, eta Eliza Ortodoxo Serbiarra —Irunen parrokia bat du— dira beste lauak. Kasu berezia dugu Eliza Ortodoxo Lipoveniarra edo Errito Zaharreko Eliza Ortodoxoa, Danubioko Delta errumaniarretik etorritako fededun komunitateek ekarritako eliza. Gutxiengo dira beren sorlekuan, eta, gurean, Bizkaian kokatzen dira, nagusiki.

Hego eta Mendebaldeko Europarako metropoli ortodoxo errumaniarraren aginduetara dihardu Parrokia ortodoxo errumaniarrak. Frantzia, Suitza, Espainia, Portugal, Italia, Erresuma Batu, Irlanda eta Herbehereetako parrokietara zabaltzan da metropoli horren jurisdikzioa. Parisko artxibarrutiaren mendean daude Italiako barrutia eta, 2008tik aurrera, Espainia eta Portugaleko barrutia —egoitza Madrilen du—.

Hiru parrokia daude Euskadin, bana lurraldeko; eta bere apaiza du bakoitzak, Errumaniatik igorriak hirurak. Adierazi dugun bezala, Errumaniatik azken urteotan iritsi diren pertsonak daude parrokia horien jatorrian; izan ere, 577 pertsona errumaniar bizi dira Donostian[6]. Hala eta guztiz ere, beste jatorri batzuetako pertsonak ere hurbiltzen dira Donostiako parrokiako gurtzara: bulgariarrak, ukrainarrak, greziarrak, armeniarrak. Halaber, Frantzia aldean bizi diren familia ortodoxo batzuek ere jo ohi dute liturgia horietara, hurbil dutelako Donostiako eliza.

Lasarte-Oriako Arantzazuko Amaren elizako etxabean egokitu zen kapera txikian bilatu beharra dago Parrokia honen jatorria, komunitate ortodoxo errumaniarrari utzi baitzioten hasieran. 2009. urtean, izapideak hasi ziren Gipuzkoako Aldundiarekin, Donostian Ubako Amaren Eliza erabili ahal izateko, kontuan harturik eliza hartan liturgia katolikoa urtean behin baizik ez zela bideratzen. Egun, behar bezala prestatu eta egokitu ondoren, **San Sebastian Martiria Parrokia Ortodoxo Errumaniarra** izena duen Elizak eskaintzen du kultu ortodoxoa, batez ere, komunitate errumaniarrari.

[6] 2014ko Ikuspegiren datuen arabera.

Donostiako komunitate ortodoxoa ez da oso ugaria, beste hirietakoaren aldean. Ehun pertsona inguruko taldea da, oro har. Hala eta guztiz ere, apaizaren hitzetan, *"egiazko komunitate ortodoxoa da, eta heltzen ari da, arian-arian, hau da, gure jatorrizko liturgia ingurunetik kanpoko erlijio bizitzan ohitzen hasia da. Ulertzen ari dira nonahi egin dezakezula otoitz, fedea benetakoa denean, bizi zaren lekua ez dela arazoa, alegia"*[7]. Komunitate gaztea da, 40 eta 45 urte bitarteko jendeak bultzatua. Ohiko liturgiez gain, parrokia eskola txiki bat dute, haurrentzakoa, eta lanean ari dira, une honetan, kultura topaketa batzuk antolatzen.

7 Parrokiako apaizarekin eginiko elkarrizketa, 2015/09/18.

Elizara erregulartasunez jotzen duten pertsona errumaniarrak gutxiengoa dira Donostiako populazio errumaniarraren barruan, eta Errumanian ere gertatzen ari denaren isla baizik ez da egoera hori. Hala eta guztiz ere, migrazio prozesutik aurrera, badirudi batzuk berriro hasi direla elizarekin harremanetan: *"...euren erlijioak, modu batean edo bestean, lasaitu egiten dituelako eta batere erraza ez den bizimoduan aurrera egiten laguntzen. Errumanian, estatistiketan ortodoxotzat hartuak ziren pertsona asko ez ziren elizara hurbiltzen beren jatorrizko bizilekuetan, baina, orain, etorri egiten dira eta parrokiako bizitzan parte hartzen. Hemen gutxiengoa garelako gertatuko da, agian, hori... baina, askorentzat, errealitatea eta laguntza da eliza hemen. Bertan hitz egin dezakezu, galdetu...".*

Eliza ortodoxoaren kasuan, bereziki azpimarratu beharra dago zeinen ugari eta bikainak diren eliza katolikoarekin dituen harremanak. Izan ere, parrokiak laga izana alde batera utzita, otoitz aste komunak egiten dituzte, adibidez.

2. Katolikoak

Mendebaldeko kristautasunaren barnean, Eliza Katoliko apostoliko Erromatarraz edo Eliza Katoliko Erromatarraz hitz egiten da, eskuarki. Halaz ere, ongi kontuan hartu beharra dago badirela beren burua erromatartzat ez duten elizak, Erromako apezpikuarekiko erabateko komunioan jardun arren, bestelako liturgia tradizioak baitituzte. Beraz, ekialdeko eliza katolikoak eta Eliza katoliko erromatarra batera hartzerakoan, Eliza katolikoa izendapen zabalagoa erabiltzen da.

Espainia bihurtu zenaren historia eta nazio eraikuntza bera ditu errotzat Erlijio katolikoaren eta, zehazkiago, Eliza Katoliko Erromatarraren nagusitasuna. Dietz-ek adierazi duen bezala (2008), argi eta garbi esan dezakegu legatu historiko gisa dirauela nazionalkatolizismoak egun. Biztanleriaren alde handi batek bere burua katolikotzat duelako, alde batetik, eta Estatuaren eta eliza instituzio katolikoaren artean dagoen lotura oso hertsia delako, bestetik. Izan ere, Espainiako ikerketa soziologikoetarako Centro de Investigaciones Sociológicas erakundearen arabera[8], Espainiako biztanleriaren % 69,3k du bere burua katolikotzat 2015ean, katoliko praktikatzaileak haien arteko % 13,7 baizik ez badira ere. Guztiz aipagarria da, era berean, Espainiako lurraldearen barnean, Euskadi izatea katoliko kopuru txikiena duten autonomia erkidegoetako bat, % 58,6, hain zuzen ere. Melillako datua baizik ez da apalagoa, baina, erlijio musulmanaren nagusitasunaren ondorioa da kopuru txiki hori leku hartan.

Elizaren eta Estatuaren arteko harremanei dagokienez, Eliza katolikoak prozesu garrantzitsu bati ekin zion Espainiako 1978ko Konstituzioaren ondotik, non rol garrantzitsua jokatu beharko zuen gizartean, baina, iraganean ez bezala, hau da, Estatuko egituretatik kanpo. Katolizismoaren desinstituzionalizazio eta birdefinitze kultural eta etikorako prozesua abiatu zen, horrenbestez, gizartean. Egia da, halaber, Elizaren eta Estatuaren arteko harremanak halako anbiguotasun baten mendean gertatu zirela, 1979an Espainiak eta Vatikanoak konkordatua sinatu ondoren. Jakina den bezala, Estatuaren eta Elizaren arteko harremanen gaineko legezko alderdi batzuekin batera, ekonomia, kultura eta hezkuntza mailako akordioak zehaztu zituzten Konkordatuan.

14 eliza lurraldetan egituratua da Espainiako Eliza katolikoa, eta, horiek, 69 elizbarrutitan. Apezpikua da elizbarruti bakoitzaren burua, eta autonomoak dira elizbarrutiok, baina Espainiako Apezpikuen Konferentziara biltzen dira Espainiako apezpiku guztiak, zeregin pastoral batzuk batera bideratzeko. 1949an sortu zen Donostiako elizbarrutia, parrokiek —apaiz bat dugu parrokia bakoitzaren burua— eta artzapezgoa osatua, azkena elizbarrutiaren eta parrokiaren bitarteko erakunde pastorala delarik. Artzapezgoen eta parrokien zerbitzuan diharduten pertsona eta erakunde batzuen laguntza du bere egitekoan apezpikuak, elizbarrutiko gobernu eta ekinbide pastoralari begira. Instituzio horiez gain, kontuan hartu beharrak dira, era berean, Eliza katolikoaren zerbitzuan diharduten idazkaritzak, ordezkaritzak eta obrak.

3. Protestanteak edo ebanjelikoak

Sortu zenetik, askotariko sinestea izan da protestantismoa, jatorritik oso bestelako moduak bideratu ditun sinesmena, eta asko dira, horrexegatik, egun, haren lerroetan aintzat har

[8] CIS delakoaren barometroak ikusteko: www.cis.es.

daitezkeen taldeak eta haien arteko dotrina desberdintasunak. Halatan, ez gara Eliza bakar bati buruz ari, ez eta dotrina homogeneo bakar bati buruz ere. Oro har, hiru mugimendu edo kongregazio bereizten dira haren baitan:

a. Nazio izaerako eliza historikoak, hala nola, Ingalaterrakoa (anglikanismoa); Alemania eta Eskandinaviako estatuetako eliza luteranoak; eta Suitza, Holanda eta Eskoziako eliza kalbinistak. Nazio izaerakoak ez diren arren, multzo horretan aintzat hartzekoak dira, halaber, eliza metodistak eta eliza bautista batzuk.
b. Kongregazio izaerako eliza historikoak (kongregazionalistak, puritanoak, anabaptistak eta bautistak) eta eliza ebanjelikoak. bigarren erreformako elizak deritze multzo hauetakoei, eskuarki.
c. Mugimendu pentekostalak edo karismatikoak.

Euskadiko eliza protestante edo ebanjeliko zaharrenak dira Hirutasuneko Eliza, anglikanoa, eta Espainiako Eliza Ebanjelikoa (EEE). XIX. mendearen bukaeran, Euskal Herriko meatzeen ustiapenarekin loturiko zereginetara hurbildu ziren familietan topatuko dugu eliza hauen bien jatorria. Allison eta Gordon Gullick misiolari britainiarrek Donostiara egin zuten etorrerarekin, 1881. urtean hain zuzen ere, lotu beharrekoak dira, Senideen Batzarrak, bestalde. 1960. urteetako hamarkadaren bukaeran hasi ziren, lehen frankismoaren garaiko errepresioaren ondoren, aurreneko eliza bautistak, talde pentekostalak eta Filadelfiako Eliza gurean egokitzen. Eliza berriak sortu eta zabaldu ziren 1978ko Konstituzioaren ondoren, Senideen Batzarrei lotuak batez ere. 1980. eta 1990. urteetan erroak egin zituen mugimendu pentekostalak, oso bestelako mugimendu bat, izen ugariko elizak sorrarazi zituelarik. Haien artean, mende honetako migrazio mugimenduen arrimuan, Latinoamerikako edo Afrikako pertsonek osaturiko komunitateak azaldu dira: ama hizkuntzan eutsi diote kultuari eta ez dira aurrez zeuden komunitateetan integratu.

Azken hamar urteotako migrazio mugimenduen ondorioz, ikusgarriro hazi dira komunitate ebanjelikoak estatuan, eta biziki aberastu dira komunitate horiek, kultura eta etnia berri askoren emaria jaso dutelarik: *"Errealitate bat da hori. Komunitateak hazi egin dira Latinoamerikatik etorritako jendearekin. Mundua nola dagoen erakusten digu horrek, hein batean. Immigrazioaren eraginez, biderkatu egin da Espainiako ebanjelikoen kopurua"*[9]. Kopuruak alde batera utzirik, bereziki interesgarria da pertsona ebanjelikoak erlijio ebanjelikoa gutxiengoa ez den tokietatik etorri direla eta, beraz, erlijio horren agerikotasun maila askoz ere handiagoa dela azpimarratzea. Zentzu horretan, positibotzat jotzen dute jende berriaren etorrera: *"Aldatu dira paradigma eta pentsamoldea. Fedeari dagokionez, etorri berri horiek ohituak daude beren elizak edukitzen eta jende asko biltzen da eliza horietara. Hemen ez dagoen harrera dute han. Berezko aberastasuna ekarri dute pertsona horiek. Ez ziren gutxiengo sentitzen"*. Eliza horiek bertakoak edo autoktonoak ez direlako estereotipoa indartzea da eliza ebanjelikoetara jotzen duten pertsona migratzaileen etorreraren beste ondorio bat, ez horren positiboa, honako honetan: *"Zer gertatzen da, beraz? Defentsara jo behar dugula berriro, ez baikara kanpoko elizak, baizik eta gizarte errealitatearen isla. Hirian gertatzen ari denaren isla gara. Errealitatearen eskutik doa eliza ebanjelikoa"*.

Mundu protestantearen edo ebanjelikoaren konplexutasuna handia delarik, hona hemen, labur bada ere, Donostian topatu ditugun Elizen ezaugarri nagusiak:

Senideen Batzarrak

Donostian du egoitza Senideen Batzarren Elizen arteko komunitate esanguratsuenetako batek, zehazki, **Amarako Eliza Ebanjelikoak**. Arestian aipatu dugun bezala, Allison eta Gordon Gullick misiolariak Donostiara etorri zireneko garaietara jo behar genuke Eliza honen jatorriarekin topo egiteko, baina, 1975ekoa da egungo eliza. Amarako hau Senideen Batzarrekin lotua da, eta FEDERE[10] federazioaren barruan dago.

---

9 Euskadiko Kontseilu Ebanjelikoko kide batekin eginiko elkarrizketa, 2015/09/18.

10 FEDERE, Federación de Entidades Religiosas Evangélicas de España, hau da, Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioa erlijio erakunde protestante ebanjelikoen elkarte bat da eta eliza horien ordezkari eta solaskide gisa dihardu Administrazio Publikoaren aurrean. Madrilen du egoitza: www.redevangelica.es. Euskadiko Autonomia Erkidegoan Consejo Evangélico del País Vasco (CEPV), hau da, Euskadiko Kontseilu Ebanjelikoak dihardu: Donostian du egoitza eta haren baitara biltzen dira Euskadiko Autonomia Erkidegoko kristau eliza eta instituzio ebanjeliko gehienak. Mota honetako

Laurogei pertsona inguruko guneak osatzen du eliza, eta bertakoak dira, Donostian sortuak, pertsona horietako gehienak. Baina, azken urte hauetan, Honduras, Ekuador eta Kolonbiako pertsonak batu zaizkie. Elizak GKE bat osatu du, Sendas / Zidorrak izenaz, Kuban proiektu sozialak bultzatzeko, eta elkarte bat sortu, Asociación para el Fortalecimiento de la Familia-Alianza Matrimonial (País Vasco) izenaz.

Espainiako Eliza Ebanjelikoa (EEE)

Ordezkariak ditu Donostian eta Bilbon. Euskal Herriko meatze ustiapenetan lan egitera etorri ziren familia ingelesak, alemanak, frantsesak eta suitzarrak ditugu eliza honen aitzindariak gurean. XIX. mende bukaeratik, oso bestelako egoerak ezagutu ditu eliza honek: esetsaldiak pairatu eta biltzeko zailtasun handiak eduki zituen garai batzuetan (diktadura frankistaren garaian bereziki).

Justizia Ministerioan erregistratua dago **Espainiako Eliza Ebanjelikoa**, eta FEREDE federazioko partaidea da. Modu egonkorrean eta konpromisoz, 40 bat pertsonak hartzen du parte Eliza honetan, eta beste asko partaide dira kultuan, elizarekiko duten lotura horren irmoa ez bada ere. Oso bestelakoa da pertsona horien jatorria: europarrak, estatubatuarrak, latinoamerikarrak eta afrikarrak.

EJBF, Espainiako Jainkoaren Batzarren Federazio barruko Elizak.

Lurralde edo senidetasunen arabera antolatuak dira Jainkoaren Batzarrak. Euskadiko Autonomia Erkidegoko elizak Iparraldeko Senidetasunaren barruan daude, Errioxa, Kantabria eta Nafarroakoekin batean. Madrilen dago Senidetasun Zentrala, zeinak garrantzi bereziko erabakiak hartzen baititu. Erabaki horietatik kanpora, batzarrean dihardu Eliza bakoitzak, zeinek bere araudi eta estatutuekin.

Donostian, Jainkoaren Batzarren artekoa da **Altzako Eliza Ebanjelikoa**, misiolari finlandiar batek 1980an abiarazi zuena. Berrogeita hamar lagunek osatzen dute komunitatea, eta beste herri batzuetatik etorria da haien arteko herena. Compartir GKEren bitartez bideratzen dute beren jardueraren zati bat.

Filadelfiako Eliza Ebanjelikoa

1965ean sortu zen Euskadin Filadelfiako Eliza Ebanjelikoa, eta 1971n hasi zen Gipuzkoan, Bilboko Elizako kide bat Errenterian bizitzen jarri eta gero. Egun, Justizia Ministerioan izena emana da, eta FEREDE federazioko kide da. Estatu mailan, Eliza lurralde geografikoen arabera banatua da, buru banaren ardurapean. Kantabria eta Asturiasekin batean, lurralde bat osatzen du EAEk; apezpiku batek zuzentzen du lurralde bakoitza, lurraldeko eliza guztien artean hautaturik. Elizak berak eskaini dituen kopuruen arabera, EAE, Kantabria eta Asturiasko lurraldean 5.000 kide ditu, 37 parrokiatan banatuak. kide gehienak ijito edo erromanien gutxiengoko kideak izatea da eliza honen ezaugarri nagusietako bat.

Beste eliza pentekostal batzuk:

Kristoren Gorputzaren Eliza Ebanjelikoa (REMAR). Eliza hau Justizia Ministerioan izena emana da, eta FEREDE federazioaren barruan. Haren jatorrian, 1980. urtearen inguruan, Gasteizen, drogen menpean zeuden pertsonak birgaitzeko bideratu zen gizarte lana. Egun, Euskadi osoan du presentzia eliza honek, eta beste eremu batzuetara (kartzela eta erietxeetako laguntza) eta mugaz haraindiko lurretara zabaldu du bere gizarte lana.

Encuentro con Dios **Kristau Eliza Ebanjelikoa**. Eliza independentea da, Justizia Ministerioan izena emana da eta FEREDE federazioko kide. Behin-behineko izaeraz, eliza hau San Inazio Kolegio katolikoko Auditoriumean ari da bere kultuak bideratzen. Behin-behineko izaeraz diogu, zeren, dagoeneko, lau urte badira eliza hau Donostiako Udalarekin elkarrizketan ari dela, eliza ebanjeliko bat eraikitzeko lur edo orube bat lortzeko xedean: *"Elkarrizketan ari*

---

instituzio publiko eta pribatu guztien erreferentziazko solaskide bihurtzea da elkartearen asmoa. Ikus: www.cepv.org.

gara Udalarekin, lur bat lortu nahian. Lau urte daramatzagu horrela. Donostia 2016 entzuten ari gara etengabe, Europako kultur hiriburua, eta nabaritu beharra dago hori. Ezinezkoa da hain kosmopolita den hiri batek eliza ez katolikorik ez edukitzea. Zenbaitetan, toleratu egiten dira beste erlijioak, baina guk ez dugu toleratuak izan nahi. Donostiako parte gara, eta hiria aberastu nahi dugu". Halaz ere, Elizak ez du lortu, orain arte, orube hori. Udalarekin eta, era berean, beste zenbait erakunderekin —esaterako, presondegi eta ospitale batzuk— izaniko esperientzian azaltzen dira gure euskal gizarteak erlijio aniztasunaren kudeaketaren arloan omen dituen premiak eta gabeziak.

Oso dimentsio desberdinak hartzen ditu hiriak tenplu ebanjeliko bat edukitzeko premiak. Alde batetik, eskubide konstituzional bat da, ospitale eta kartzeletako presentzia ere, pertsonak artatu ahal izateko, halakoa den modukoa. Bestalde, aitortza eta agerikotasuna ziurtatzen ditu tenplu bat izateak. Komunitatearentzat garrantzitsua da agerikotasuna, misio espiritualerako ez ezik, gizarte lanerako aukera ere ematen baitu horrek. Normaltasunaren aldeko aldarri honetan, ezinbestekoa da agerikotasunerako urratsak egitea. Lokaletan etsi behar izatea oztopoa da pertsonak topatzeko momentuan eta, aldi berean, lokal horiek ez dira behar bezain egokiak izaten kultua bideratzeko eta elizaren gizarte lanak burutzeko. Eliza honen iritziz, Donostia hiri kosmopolitatzat hartzeko, ezinbestez ezagutu eta agerian utzi beharra dago hiriaren aniztasuna eta, jakina, erlijio aniztasuna da askotariko izaera horren ezaugarrietako bat.

4. Kristau inspirazioko beste eliza batzuk

Zazpigarren Eguneko Eliza Adbentista

XIX. mende bukaerako Estatu Batuetako giro metodista eta bautistetan kokatu beharra dago Eliza honen jatorria. Planeamendu eskatologikoak bereziki azpimarratuz, kristau tradizioaren aurrean garatu dituzten moduak direla kausa, ez dira tradizioaren begietara kristau ebanjelikotzat hartzen. Gure herrian, Justizia Ministerioan izena emana da eliza hau, eta FEREDE federazioaren barruan dago. Euskadiko lehen talde adbentista 1936an sortu zen, eta, egun, sei kultu leku ditu, horietako bat, Donostian. 500 pertsonatik gora dira Euskadin eliza honetako kideak, eta, oro har, bertako pertsonak badira ere, leku batzuetan garrantzitsua da pertsona errumaniarren edo latinoamerikarren presentzia.

Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Eliza

Joseph Smith-en irudian eta XIX. mende hasierako hamarkadetan Estatu Batuetan bizi izan zen erlijio eferbeszentzian bilatu beharra dago AESJE delako elizaren jatorria. Mormonen Liburua aurkitu eta 1830. urtean AESJE eliza sortzera eramango zuten agerkunde eta errebelazio batzuetako lehena bizi izan zuen Joseph Smith-ek 1820an.

1960. urteetako hamarkadan azaldu zen AESJE delakoa Espainian. 1965etik aurrera, bost misio geografiko finkatu zituen Espainian: Bilbo, Bartzelona, Madril, Malaga eta Kanariar Uharteak. 1978tik dihardu Bilboko Misioak eta, elizbarruti gisa, Euskadiko hiru lurraldeak, Nafarroa, Errioxa, Kantabria eta Burgos hartzen ditu bere baitan. Gipuzkoako lurraldean, 200 kide inguru ditu, eta elizbarruti osoan, 1.900. 2006. urtean, sustrai sendoko erlijio sinesteen aitortza jaso zuen Eliza honek Justizia Ministerioaren aldetik. Azken urteotan, joan den mendearen bukaeratik eta mende honen hasieratik aurrera, AESJE elizak kide hazkundea bizi izan du, beste leku batzuetatik etorritako jendearen eskutik. Latinoamerika eta Afrikatik hurbildu zaio jende hori, bereziki.

AESJE elizak duela 35 bat urte egin zituen Donostian aurreneko urratsak, familia batzuen bitartez. Izan ere, etxebizitza partikular batean hasi ziren biltzen, ondoren, garaje batean. Baditu urte batzuk egungo lokalean biltzen hasi zirela, baina, orube bat eskuratu dute Onkologikoaren ondoan, eta abian dute, dagoeneko, han kapera bat eraikitzeko proiektua. Jasotzen dituen hamarrenen bitartez, bere gain hartu du Elizak lurrak erosi eta ondoko eraikuntza lanak ordaintzea. Instituzioekin, oro har, harremanik bideratu ez duten arren, Udalera jo zuten, hirian eskuragai ziren orubeen gaineko informazio eske. Hala eta guztiz ere, aintzat hartu ez zituztela iruditzen zaie, eta, haien ustez, gutxiengo direlako tratatu zituzten horrela. Kideen aburuz, ospakizunei begira gune eta espazio aproposa edukita, aukera izango dute hirian ageri-agerian jardun ahal izateko eta, horrez gainera, instalazio finkoak izango dituzte errito batzuetarako. Izan ere, murgiltzea da AESJE elizak bataiatzeko bideratzen duen metodoa.

Beste leku batzuetan bezala, Donostian, Eliza honetako kideak hainbat jatorritakoak dira, eta, jarraitzaile horietako batek adierazi digun bezala: *"Ez duzu hemen toki bereko bi lagun topatuko"*[11]. Izan ere, Kamerungoa da Donostian elizako buru diharduen apezpikua. Hala eta guztiz ere, arazorik ez du sortu hain kultura tradizio desberdinetako pertsonen arteko topaketak: *"Ongi ohartua naiz ni, Elizaren printzipioak bihurtu direla gure zentroa, gure bizitzaren ardatza. Beste kultura batzuetatik datozen heinean, beste hainbeste gertatzen zaie, halaber, beste askori. Anekdotak dira beste guztiak, orduan: desberdin jatea, desberdin janztea…"*. Bestalde, erlijioaren beraren garrantzia nabarmentzen da migratu berri diren pertsona horien kasuan, elizan laguntza espirituala ez ezik beste mota bateko laguntza ere topatuko duten neurrian. Zentzu horretan, lana bilatzea erraztu eta ekintzaile gaitasunak eta baliabideak garatzeko ikastaroak burutu dituzte. Elizak hirian duen kide kopuruari dagokionez, 100 inguru dira hara hurbiltzen diren pertsona konprometituak.

Jehovaren Lekuko Kristauak

AEBko Pennsylvanian sortu zen Eliza hau, XIX. mendeko 1870.eko urtearen hamarkada hasieran, Charles Taze Rusell-ek bultzatuta. Jehovaren Lekukoen nazioarteko lehenengo kongregazioko aurreneko lehendakaria izan zen, ondoren, Rusell. Bibliaren mezuan beraren ikerketaren bidez sakontzea nahiz hainbat agerkaritan argitaraturiko lanen eta predikuen bidez mezu hori zabaltzea eta ezagutaraztea dira Eliza honen funtsezko euskarriak. Antolakuntzari dagokionez, Watchtower elkartearen paraleloan hazi zen Eliza hau: 1914tik aurrera hasi zen elkarte hura AEBtik kanpora hedatzen.

XX. mendearen hasieran iritsi zen sineste hau Espainiara, eta etengabe hazi eta zabaldu da handik aurrera. 2006. urtean, "sustrai sendoko" erlijio sinesteen ezagutza jaso zuen Eliza honek Justizia Ministerioaren aldetik. Euskadiko egoerari dagokionez, 1950. urteetan hasi ziren eliza horren aitzindariak gurean lanean, Bilbo eta Donostia hirien inguruetan betiere. Estatuak ezagutu zuen arte, ezin izan zituen Eliza honek garai hartako zailtasunak gainditu eta klandestinitateak erantsitako oztopoak atzean utzi. Orduan hasi zen Eliza hazten, 9 kultu leku (Erresumaren Aretoak deituak) izatetik, 16 izatera igaro zen Gipuzkoan; 19tik 24ra, Bizkaian, eta, 2tik 3ra, Araban. 2010. urtearen hasieran 61 kongregazio (Erresumaren Areto adina ia-ia) zituen Eliza horrek Euskadin: 21, Gipuzkoan; 36. Bizkaian, eta, 4. Araban. 4.670 pertsona, guztira. Hiru Erresumaren Areto daude Donostian.

ISLAMA

Muhammad profetak VII. mende hasieran sorturiko erlijio monoteista da islama. 632. urtean hil ondoren, mendebalderantz zabaldu zen islama, Afrikako iparraldean barrena, eta ekialderantz, India, Txina eta Indonesiara iritsi arteraino. Profetaren heriotzaren ondoren, barruko aurreneko zatiketak bizi izan zituen Islamak, ondorengotzak eta erlijio berriaren eraginpeko lurraldeen arteko desberdintasunek eraginiko liskarren eta tentsioen ondorioz. Izan ere, garai haietatik datoz bi adar musulman nagusiak: xiiak eta suniak (pertsona musulmanen % 90, ia-ia), bai eta jariyien adar txikia ere. Bestalde, adar edo korronte bakoitzaren barruan, izugarri zabala da eskola desberdinen emana eta, beraz, askotarikoa da, oso, islamaren multzoa.

Ageri duen aniztasun horretan, ongi gogoan izan beharra dago, gainera, islamak testuinguru soziokultural desberdinetara zabaldu eta egokitzeko erakutsi duen gaitasuna, eta, horrenbestez, kontuan harturik, era berean, egitura zentralik ez duela, askotariko erlijioa da, inolaz ere, egungo islama. Hala eta guztiz ere, barruko aniztasuna oso indartsua den arren, islamaren batasunaren ideiak ez du eragozpenik topatzen, Koranaren beraren muina den aldetik.

Urria eta oso gutxi dokumentatua da islamaren presentzia Erdi Aroko eta Berpizkundearen garaiko euskal gizartean. XX. mende bukaera arte ez dugu topo egingo pertsona musulmanen presentziarekin, Gipuzkoako industria eremuetan. Une haietan, erlijio ospakizunak esparru pribatuan bideratzen zituzten hemengo musulmanek. Migrazio berrienaren eskutik etorri eta gorpuztuko ziren aurreneko komunitate musulmanak, jatorri marokoar eta aljeriarreko biztanleek osatuak. Elkarteak eta meskitak sortu zituzten. Eibarren sortu zen Euskadiko aurreneko meskita, 1982an, hain zuzen ere, eta Gasteizko Al-Taqua meskita izan zen hurrena,

[11] Elizako bi kiderekin eginiko elkarrizketa, 2015/09/24.

1986an. Horiek eta beste meskita batzuk erregistratu zituzten ondoko urteetan Justizia Ministerioaren Erlijio Erakundeen Erregistroan, esaterako, Eibarko Arrahma Meskitako Komunitate Islamdarra eta Errenteriako Elmohacín Meskita Elkartea. 2015eko maiatzean sortu zen Donostia Kultura Gune Islamdarra, hasiera-hasieratik Euskal Herriko Islamiar Komunitateen Batasuneko elkarte gisa erregistratua. 2007an sortu zen Batasun hori, Bilboko Assalam meskitaren ekimenari jarraiki.

Donostia Kultura Gune Islamdarra Herrerako auzoan dago, eta Donostian 30 urtetik gora dituen komunitate musulmana zerbitzatzen du. Pertsona horietako gehienek Errenteriako Meskitara jotzen zuen lehen, nagusiki, kontuan harturik udalerri horretan egun ere bi meskita daudela[12]. Hartara biltzen diren lagun gehien-gehienak, % 90 inguru, jatorri marokoarrekoak dira, baina, ohikoak dira komunitate horretan Aljeria, Pakistan, Tunisia edo Egiptoko pertsonak ere. Otoitzez gainera, beste mota batzuetako jarduerak eta ekitaldiak bideratzen dituzte Gunean, hala nola, haurrentzako eskola txikia, gaztelania eskolak (euskara eskolak ere eman nahi dituzte), hitzaldiak eta abar. Jarduera horiek guztiak gizon eta emakumeei zuzenduak dira, eta ez dira soil-soilik musulmanentzat. Izan ere, bizi diren gizartera irekitzea eta harekin harremanetan egotea da gunearen oinarrietako bat: *"Jarduera eta ekitaldi guztiak gizonentzat nahiz eta emakumeentzat dira. Bai eta musulmanei eta ez-musulmanei ere. Horrexegatik da kultura gunea eta, ondoren, islam gunea. Hitzaldiak antolatu ditugu hemen, eta jende guztia izan da haietara gonbidatua. Musulmanak ez diren pertsonak ere etorri izan dira, batzuetan. Gosari bat izan zen azkeneko ekitaldia, auzokoekin batera bideratua. Gure filosofiaren oinarrietako bat da —eta biziki interesgarria da hori—, meskita ez ixteaz gainera, meskitako ateak mundu guztiarentzat zabalik izatea"*[13].

Zuzendaritza batzorde berria du egun Guneak, eta komunitateak berak hautatu ditu kideak. Era berean, batzordeburua aukeratzen dute hautaturiko kideek, eta emakume bat da, oraingoan. Otoitzez, islamaren gaineko hitzaldi eta hizketaldiez, eta beste gai batzuetaz arduratzen da imana, eta batzorde horrek berak aukeratzen du. Gunera hurbiltzen diren sinestunei dagokienez, datu ofizialik ez dagoen arren, azken urte hauetan komunitate musulmana hazi dela uste dute, handiagoak dira asistentzia eta parte hartze maila. Partaidetza hori oso esanguratsua da neska-mutikoen eskolaren alorrean, eta badu garrantzia puntu honek, zeren *"hiri honen etorkizuna baitira haurrak. Hezi ere egiten dira zein bere eskolan, baina, hemen, islama lantzen dute, islamaren ikuspegia, eskola ofizialean ikasteko modurik ez daukaten aldetik. Halako orekaz hazten dira, beraz, islamarekiko harremanei begira"*. Otoitzez, eskolez eta hitzaldiez gainera, islamaren araberako jai guztiak ospatzen dira Gunean, eta handiagoa izaten da ospakizun horietan hartara jotzen duen jendearen kopurua.

Komunitate musulmanak haien bizilagunen aldetik ikusiak eta aintzat hartuak diren moduen gainean duen pertzepzioa nahiko positiboa da, oro har, gatazka oso puntual batzuk gorabehera: *"Oro har jasotzen dugun pertzepzioaren arabera, ongi hartzen gaituzte, eta gizarte honen partaide gara. Horrek ez du esan nahi noizean behin gorabeherarik ez daukagunik, baina oso bakanak dira egoera horiek. Bizilagunak gonbidatzen ditugunean, etorri eta parte hartzen dute. Errenterian asko etortzen dira. Etxera bidalitako gutunen bitartez gonbidatzen ditugu. Alkatea bera ere harritu egin zuen bizilagunen erantzunak"*. Finantzazioa da komunitateak aurrera begira duen premia nagusia, proiektuak burura eraman ahal izateko eta Donostiako gizartera zabaldu eta hartan presentzia ziurtatzeko. Izan ere, arestian adierazi dugun bezala, komunitatearen helburu argienetako bat da gizartera zabaltzea eta instituzio, erakunde eta gainerako erlijioekiko elkarlana bultzatzea: *"Elkarlanean jardun behar dugu, bizikidetza oinarritik lantzen duten proiektu asko burura eramateko. Ezinbestekoa da bizikidetza, eta premia gero eta larriagoa integrazioa"*.

---

[12] 2000. urtean Islam Gune bat zabaldu zen Gros auzoko etxebizitza partikular batean, baina ez omen zuen luzaro iraun.

[13] Guneko bozeramailearekin eginiko elkarrizketa, 2015/09/17.

BAHA'I FEDEA

Pertsia zaharrean sortu zen *bahá'í* erlijioa, XIX. mendearen bukaeran. Mirza Husain Ali Nuri profeta eta sortzailearen irakaspenetan oinarrituriko erlijio monoteista da bahaismoa (Bahá´u´lláh, hau da 'Jainkoaren Loria' izenaz ezagutu zuten, ondoren, Ali Nuri). Abraham, Moises, Buda, Zoroastro, Kristo eta Muhammad-en ondoan, Jainkoaren mezulari kate bateko azkenekotzat hartzen dute, izan ere.

1972an sortu zen lehen komunitatea Gipuzkoan, Donostian, hain zuzen ere, sineste horretako bi artista txiletarrek, arte jira bat zela medio, gure lurraldera ekarri ondoren. Donostiako lagun batzuekin izan zuten harremanaren ondorioz, erlijio haren aldeko interesa piztu zen gazte talde batengan, eta, horrenbestez, aurreneko komunitatea sortu zen. Bizkaian eta Araban ere badira komunitate bahaistak; lehenengo kasuan, Zaragozatik fede horretako pertsona batzuk hara heltzeari lotuta, eta, bigarrenean, 1980. urteetako hamarkadan familia iheslari irandar bat han egokitu eta gero. Egun, 200 pertsona dira bahá'í fedearen jarraitzaileak Euskadin.

BUDISMOA

Budismoa erlijio eta filosofia doktrina ez teista bat da, eta Indian sortu zen K.a. VI. mendean. Indiako iparraldetik Asiako kontinente osora hedatu zen, eta bi tradizio handi gorpuztu ziren bilakaera hartan: *Theravada* ("zaharren eskola") eta *Mahayana* ("ibilgailu handia"). Lehen tradizioaren jarraitzaileak dira, batez ere, Sri Lankan, Bangladeshen, Vietnamen, Kanbodian eta Thailandian, eta Tibeten, Japonian, Mongolian eta Errusian bigarren tradizioak dihardu nagusi. Egun, Euskadin topatzen ditugun budismo motak tibetarra eta *zen*a dira, *Mahayana* tradizioko eskolak biak.

Estatu mailan, 1970. urteen bukaeran agertu ziren budismoaren ikerketarako leku edo gune nagusiak. 1991n sortu zen Espainiako Komunitate Budisten Federazioa (Federación de Comunidades Budistas de España, FCBE), eta 1995ean eman zuen izena Erlijio Erakundeen Erregistroan. 2007an hartu zuten, ofizialki, sustrai sakoneko erlijiotzat budismoa.

1980. urteetako hamarkadaren hasieran agertu zen budismoa Euskadiko bazterretan. Lehenago, Frantzia aldera jotzen zuten, nagusiki, erlijio eta filosofia horretara hurbildu nahi zutenek. Gurean budismoaren hastapenak lehenagokoak diren arren, 2004. urtean sortu zen Drukpa eskolaren araberako Chö Dje Ling Kultura Elkarte Budista ("Dharmaren Jainkoaren Lorategia"). Budismo tibetarraren *kagyu* leinuaren barrukoa da elkarte hau, eta Gyalwang Drukpa santutasunaren lidergoaren menpean dihardu. 2012an azaldu zen Rigpe Dorje Donostia delako elkartea, *kagyu* leinuaren barrukoa hau ere, IV. Jamgon Kongtrul Rinpoche-ren lidergoaren menpean. Budismo tibetarraren araberakoa da, era berean, Kadampa Euskadi elkartea, *gelupga* leinuaren lerroetan diharduelarik. Budistak dira, orobat, baina budismo japoniarraren barrukoak, Mandala Budista Donostia elkartea eta Zen Ko Mei Luz del Despertar (Iratzar Argia) gunea. Bestalde, kontuan hartu beharrak dira haien jardueretan eta eskaintzen duten prestakuntzan praktika budistak bideratzen dituzten elkarteak eta institutuak. Ez dezagun ahantz budismoa hainbat motatako pertsonek praktikatua dela, eta, haien artean, beste erlijio batzuetako sinestunak ere aurki daitezkeela.

Gune horietara hurbildu ohi diren bazkide eta pertsonen kopurua ez da oso handia izaten, baina, Donostiara lamaren bat etorri izan denean, 300 lagun ere bildu izan ohi dira haren ingurura. Aldi horietan, hemengo guneetara hurbiltzen diren pertsonez gainera, beste leku batzuetako jarraitzaileak ere bertaratzen dira. Autoktonoak edo bertakoak dira budismoan ari diren eta aipatu lekuetara jotzen duten pertsona gehienak; baina, azkenaldi honetan, Donostia aldean bizi baina jatorriz Mongoliakoak edo Errusiako Federazioko Kalmukiako Errepublikakoak diren pertsonak ere hurbildu dira, ospakizun edo bisitaldi garrantzitsuren batean, batez ere. Izan ere, Kalmukiako Errepublika da budismoa erlijio nagusitzat duen Europako lurralde bakarra.



JUDAISMOA

Donostian bizi diren pertsona juduen kopurua zenbatekoa den ezin dezakegu zehaztu, eta erlijio horri loturiko kultu leku bakar bat bera ere ez dagoela esan beharra dago. Nolanahi ere, hurbil dago Donostiatik **Baionako Sinagoga**, Ipar Euskal Herrian, hain zuzen ere. Historian zehar, komunitate juduaren gune garrantzitsua izan da Baiona, hiri hartan babestu baitziren XV. mendean Gaztela, Argoi eta Nafarroatik ohildu zituzten juduak. Egun, oso murritza da Baionako komunitate judua; hogei bat lagun hurbiltzen dira errabinoak eskaintzen dituen ofizio eta zerbitzuetara, nahiz eta pertsona eta familia judu gehiago hurbiltzen diren Sinagogara egun jakin batzuetako ospakizunetarako.

7. DONOSTIAKO ERLIJIO SINESTEEN ZERRENDA

Parroquia Ortodoxa Rumana San Sebastian El Mártir Errumaniako Parrokia Ortodoxoa
Camino de Uba, 37
Uba bidea, 37
manescu_marian@yahoo.com

Catedral del Buen Pastor / Artzain Ona Katedrala
Calle Urdaneta kalea, 12
artzainaonaparrokia@telefonicda.net

Santa María del Coro
Calle 31 de Agosto kalea, 46

Padres Carmelitas
Calle Easo kalea, 75
Calle Pedro Egaña kalea, 7

PP Jesuitas
Calle Andia kalea, 3
redssj@euskalnet.net

Sagrado Corazón / Bihotz Sakratua (Urgull)

Santa Cruz / Gurutze Santua
Paseo de Aiete pasealekua, 84
gurutzeaga@telefonica.net

San José Obrero
Paseo de Casares 143, 3.
Kasares Pasealekua 143, 3º

San Vicente Mártir
Calle San Bizente kalea, s/n, z/g
ftxara@euslanet.net

Jesús de Nazaret
Paseo Larratxo pasealekua, 20 bajo / beheko solairua

San Marcial / San Martzial
Paseo Altza pasealekua, 44

San Pablo
Grupo Arriberri taldea, 1

Nuestra Señora del Rosario
Calle Ferrerías kalea, 2
unescoeskola@retemail.es

Sagrada Familia
Calle Jose María Salaberria kalea, 2
juanmar@euskalnet.net

San José
Illumbe, 6 / Ilunbe, 6
sanjoseamara@telefonica.net

Santiago Apóstol
Calle Amara kalea, 15
santiagoparroq@gmail.com

Nuestra Señora del Carmen
Avenida Añorga Hiribidea, 42
luisaranalde@ya.com

San Martín Obispo
Calle Easo kalea, 20
koldo@demss.net

Nuestra Señora de Aranzazu
Calle Konkorrenea kalea, 106
ekortadi@ud-ss.deusto.es

Santa María Reina
Calle Ametzagaña kalea, 60
ekortadi@ud-ss.deusto.es

Santa María Magdalena y San Francisco de Asís
Calle Duque de Mandas kalea, 39
jonzabalgo@gmail.com

Dios Nuestro Padre
Plaza Jose Mª Sert plaza, 7
diosnuestropadre@gmail.com.

Resurrección de Cristo
Paseo de Heriz Pasealekua, 82.

San Sebastián Mártir
Plaza Alfonso XIII plaza,1

Corazón de María
Avenida de Navarra,1
Nafarroako Etorbidea, 1
ikastola@mbiotza.euskalnet.net

San Ignacio de Loiola
Calle Zabaleta kalea, 18
parroquiassaninazio@gmail.com

San Pío X
Avenida Ategorrieta etorbidea, 31
pioxdon@yahoo.es

Espíritu Santo
Avenida Tolosa etorbidea, 120

San Pedro Apóstol
Paseo del Padre Orkolaga paseabidea, 2
parroquiaigeldo@gmail.com

Iglesia Cristiana Evangélica Encuentro con Dios Kristau Eliza Ebanjelikoa
Oficina / Bulegoa: Calle Marino Tabuyo kalea, 13
Culto/Otoitza: Colegio San Ignacio ikastola, Avenida Navarra / Nafarroako etorbidea, 35
unaiarretxe@gmail.com

Iglesia Cristiana Evangélica de Amarako Eliza Kristau Ebanjelikoa
Plaza Armerias plaza, 2

Iglesia Cuerpo de Cristo
Kristoren Gorputza Eliza
Paseo Larratxo pasealekua 6, bajo, behe solairua

Iglesia Evangélica Española
Espainiar Eliza Ebanjelikoa
Avenida Ametzagaña etorbidea, 43

Iglesia Evangélica Filadelfiako Eliza Ebanjelikoa
Camino de Jai-Alai bidea, s/n, z/g

Iglesia Evangélica de Alza, Asambleas de Dios
Altzako Eliza Ebanjelikoa, Jainkoaren Asanbladak
Paseo Bertsolari Txirrita pasealekua, 14, trasera, atzealde

Iglesia Adventista del Séptimo Día
Zazpigarren Eguneko Eliza Adbentista
Calle de Gaztelu kalea, 13

Iglesia de Jesucristo de los Santos de los Últimos Días
Jesukristoren Azken Egunetako Santuen Eliza
Calle Catalina Erauso kalea, 21

Salón del Reino de los Testigos Cristianos de Jehová
Jehovaren Testigu Kristauen Erreinuko Aretoa
Paseo Bertsolari Txirrita pasealekua, 16
Calle Jai-Alai kalea, 6
Plaza Artikutza plaza, 4

Centro cultural islámico de San Sebastián
Donostiako kultur zentru islamiarra
Calle Herrera kalea, 20, bajo / beheko solairua.

Comunidad Bahá'í komunitatea
Calle de Zarautz kalea, 49, IB

Asociación Cultural Budista Drukpa Kultur Elkarte Budista
Calle de la Tejería kalea, 28 A

Meditación Kadampa Euskadi Meditazioa
Calle San Francisco
San Frantzisko kalea

Asociación Rigpe Dorje Donostia/San Sebastián elkartea
Calle 31 de Agosto kalea, 24

Mandala Budista Donostia/San Sebastián
mandaladonostia@yahoo.es

Centro Zen Ko Mei "Luz del Despertar" Zen zentrua
Calle Peña Goñi kalea 3, bajo izquierda / beheko solairua ezkerra
info@dojozen.es

8. BIBLIOGRAFIA

Testuan aipaturiko bibliografia:

CASANOVA, J. (2001): "Religion, the new Millennium, and Globalization". *Sociology of Religion* 62 (4): 415-441 or.
_____ (2000): *Religiones públicas en el mundo moderno*. Madril: PPC:

DIETZ, G. (2008): "La educación religiosa en España: ¿Contribución al diálogo intercultural o factor de conflicto entre religiones? *Estudios sobre las Culturas Contemporáneas*, Vol. XIV, Núm. 28, pp. 11-46. Disponible en: http://redalyc.uaemex.mx/src/inicio/ArtPdfRed.jsp?¡Cve=31602802.

EBAUGH, H. R y CHAFETZ SALTZMAN, J. (eds.) (2002). *Religión Across Borders. Transnational Immigrant Networks*. Oxford: Altamira Press.

GEERTZ, C. (1997): *La Interpretación de las Culturas*. Gedisa: Bartzelona.

LEVITT, P. (2007). "Rezar por encima de las fronteras: cómo los inmigrantes están cambiando el panorama religioso". *Migración y Desarrollo*, primer semestre, 66-88 or..
_____, (2004): "Redefining the Boundaries of Belonging: the Institutional Character of Transnational Religious Life". *Sociology of Religion*, 65 (1): 1-18 or..

MORERAS, J. (2006): "Migraciones y pluralismo religioso. Elementos para el debate". *Documentos CIDOB*, Serie: Migraciones, 9. zk.,1-55 or..
_____, (2005): "¿Integrados o interrogados? La integración de los colectivos musulmanes en España en clave de sospecha", in: Pedreño, A. y Pedreño, M. (Coord.) *La condición migrante. Exploraciones e investigaciones desde la región de Murcia*. Murcia: Universidad de Murcia, 227-240 or..

PAREKH, B. (2005): *Repensando el multiculturalismo*. Madril: Itsmo.

PEREZ-AGOTE, A. (2007): "Dimensiones del pluralismo religioso. El proceso de secularización en la sociedad española", *CIDOB d´Afers Internacionals* aldizkaria, 77. zk., 65-82 or..

RUIZ SOROA, J. (2010): *El esencialismo democrático*. Madril: Trotta.

RUIZ VIEYTEZ, E. (dir.) (2010): *Pluralidades latentes. Minorías religiosas en el País Vasco*, Bartzelona: Icaria.

RUIZ VIEYTEZ, E. e INTXAURBE VITORICA, R. (2014): "Marco jurídico interno sobre la gestión de la diversidad religiosa: el orden normativo como instrumento para la armonización" en: Morondo, D. y Ruiz Vieytez, J. (ed.), *Diversidad religiosa, integración social y acomodos. Un análisis desde la realidad local en el caso vasco*. Brusela: P.I.E Peter Lang, 15-53 or.

Kontsultaturiko bibliografia:

APARICIO, R.; TORNOS, A.; LABRADOR, J. (1999): *Inmigrantes, integración, religiones*. Un estudio sobre el terreno. Madril: Upco.

BILBAO URKIDI, S. (2015): *El capital social de las minorías religiosas en el País Vasco*. Doktorego tesia, UPV / EHU:

CANTON, M. (2001): *La razón hechizada. Teorías antropológicas sobre la religión*. Bartzelona: Ariel Antropología.

HERVIEU-LEGER, D. (2002): “Les tendances du religieux en Europe”, *Rapport du Commissariat Général du Plan, Croyances religieuses, morales et éthiques dans les processus de construction europénne*. Paris: La Documentation Francaise.

HIRSMCHAM, C. (2004): “The role of religion in the origins and adaptation of immigrant groups in the United Sates”. *International Migration Review*, 38. alea (3): 1.206-1.233 or..

MORONDO, D. y RUIZ VIEYTEZ, J. (eds.) (2014): *Diversidad religiosa, integración social y acomodos. Un análisis desde la realidad local en el caso vasco*. Brusela: P.I.E Peter Lang.

PEREA, J. y SAEZ DE LA FUENTE, I. (2008): *Inmigración, identidades religiosas y diálogo intercultural*, Bilbo: IDTP.

RELAÑO PASTOR, E. (2010): “Derechos (humanos) individuales y pluralismo religioso: conflictos y propuestas” en: Ruiz Vieytez, E. y Urrutia Asua, G. *Derechos Humanos y diversidad religiosa*, Zarautz: Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe / Gipuzkoako Foru Aldundia, 211-247 or..

RUIZ VIEYTEZ, E. (2010): “Religiones, identidades y derechos humanos: cuestiones y debates para el siglo XXI” in: Ruiz Vieytez, E. y Urrutia Asua, G. *Derechos Humanos y diversidad religiosa*, Zarautz: Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe / Gipuzkoako Foru Aldundia, 21-51 or..

URRUTIA, G. (2014): *Minorías religiosas y derechos humanos. Entre el reconocimiento social y la gestión pública*. Doktorego tesia, Deustuko Unibertsitatea.

VIDAL, F. y MARTINEZ, J. (2006): *Religión e integración social de los inmigrantes: La prueba del ángel*, Valencia: CEIM / Universidad Pontificia de Comillas / Bancaja.